

«Siriakoa oso gerra konplexua da; intentsitate baxuko mundu gerra bat da»

ARITZ SAIDI OLAORTUA
NAZIOARTEKO ANALISTA

Zizurkilen ariko da bihar, Plazida Otañon, 'Zer ari da gertatzen Sirian?' hitzaldiaren babespean. Siriako gatazka ulertzeko hainbat baliabide eskainiko ditu // 3

Olatz Peon izango da Tolosako EAJren alkategaia, 2019ko hauteskundeetan

Gaur, duela hiru urte alkate kargua hartu zuen jeltzaleak eta data baliatu nahi izan du EAJk zerrendaburua aurkezteko. «Hausnarketa luze bat» eta gero, bigarren helduko dio erronkari // 5

Eskualdeko manifestazioa deitu dute Altsasuko auzipetuen alde

Ostegunean izango da manifestazioa Anoetako kaleetan barrena, 19:30ean hasita, Ernaik deituta; Iruñeko manifestaziorako autobusak antolatu dira // 2

Kaleko paretak koloreztatzeko egunak ekarriko ditu Beantatzek

Kaleko Artearen Nazioarteko Jaialdia gaur hasi eta igandera bitarte luzatuko da; Haurren Hiriarekin elkarlanean murla margotuko dute // 5



Atzo egin zuten laugarren mendeurrenaren lehen agerraldia. I. GARCIA LANDA

Amasa eta Villabonaren bat egitearen lau mende beteko dira 2019an

Udalak egitarau zabala osatu nahi du urteurrenaren harira; bi lantalde osatuko ditu ekitaldi zerrenda osatzeko, bata instituzionala eta bestea herrikoia; data gogoratzeko logotipoa ere aurkeztu dute // 4

«Hasiera gogor eta lotu samarra izan da, baina ilusioarekin gaude»

ANJEL LARRAÑAGA
ORIO B-KO ENTRENATZAILEA

Aurretik Orioko entrenatzaile lanetan ibilia bada ere, aukera izan bezain pronto Zarautzetik Oriora itzuli da tolosarra. B taldeko entrenatzailea izango da aurrerantzean, Jon Salsamendiren «esanetara» // 7

Santio jaiak iragartzeko kartel lehiaketa martxan da Villabonan

Ekainaren 18a baino lehen entregatu beharko dira egitarauaren azal proposamenak 'Zuretzat' udal bulegoan

Erredakzioa Amasa-Villabona

Azken urteotan bezala, Villabonako Santio jaietako egitarauaren azala lehiaketa bidez aukeratu da. Joan den urtean saririk gabe utzi zuten lehiaketa, aurkeztutako lanek «kalitate nahikorik ez» zutela argudiatuta eta horrek polemika eragin zuen herritarren artean.

Urtero bezala, uztailaren 24tik 31ra bitartean ospatuko dira Santio festak Villabonan. Jaietako egitaraua biltzen duen esku programaren azala erabakiko da lehiaketa bitartez.

16 urtetik gorako herritarrek soilik parte hartu ahal izango dute lehiaketan, eta irabazleak 400 euroko saria jasoko du. Hona hemen oinarriak: lanek originalak izan beharko dute; norbaitek originala ez den lanen bat aurkeztuko balu, ezin izango da lehiaketaren hurrengo edizioan aurkeztu; azalaren formatua 21x21 zentrimetrokoa da, eta edozein teknika erabili ahal izango da; *Santio Jaiak - Villabona 2018* testua eraman beharko du kartelak.

Proposatzen diren lanak Villabonako Udaleko *Zuretzat* bulegoan aurkeztu beharko dira datorren astelehena, hilaren 18a baino lehen. Bulegoa zabalik izaten da 08:00etatik 14:00etara bitarte. Itxita egongo den gutun azal batean parte hartzailearen izen-abizenak eta telefonoa jarri beharko dira.

Blusen eguna izango da larunbatekoa Elbarrenan

ZIZURKIL // Zizurkilgo festa batzordeak egun osoko festa antolatuko du. Goizean 11:30ean sagardo dastaketa, pintxoak eta haur jolasak izango dira. 14:30ean, berriz, Blusen bazkaria izango da Joxe Arregi plazan. Ondoren, 18:00etan, auzoz auzo jolasak egingo dituzte eta Haizea eta Andrea trikitilarietara erromeria izango da. Gauean, 23:30ean, Burrumba elektrotzaranga ibiliko da Elbarrenako kaleetan zehar giroa jartzen.

Zaharberritutako Irizibarko karobia aurkeztuko dute

ZIZURKIL // Udalak, Hernandorena kultur elkarteak eta Andoaingo Burdina Taldeak jardun dute elkarlanean karobia txukundu eta zaharberritzen. Lanak erakusteko aurkeztuena, igandean 11:00etan izango da. Bertara azaltzeko bi hitzordu egin dituzte: 10:00etan Pedro Mari Otaño plazan elkartu eta oinez joatea karobiraino; edo bestela, 10:45ean Zearsorora autoz joatea eta handik oinez abiatzea Irizibarrera.

'Angula ustelak' hitzaldia egingo dute etzi Anoetan

ANOETA // Mikelasagasti auditorioan, ekainaren 15ean, Ainhua Intxaurrendieta eta Igor Meltxor ariko dira azalpenak ematen 18:00etatik aurrera. Iñaki Errazkin Gipuzkoako Ingurumen diputatua zela eta Ainhua Intxaurrendieta GHK kontsultzioko lehendakaria, 2013an Zubietako erraustegia geldiarazi izanagatik epaitu zituen Madrilgo Kontu Auzitegiak joan den apirilaren 12an.



ASTEBURU PASA PARISERA

Zizurkil eta Villabonako Oria merkatari elkarteak Parisen asteburu bat pasatzeko bidaia zozkatu du. **Berdura plazan, herritar batek atera zuen atzo txartel irabazlea: Tinta inprimategian egindako erosketagatik Aner Elgorriagak betetakoa. «Sorpresaz» hartu zuen saridunak oparia. «Ez nuen espero, hiruzpalau txartel baino ez nituelako. Lantokian nengoen eta bila etorri zaizkit sariduna ni nintzela esanez». Pozez hartu du, herriko ostalari ere baden Elorriagak. J.M.**

Eskualdeko manifestazioa Altsasuko auzipetuen alde

Tolosaldeko Ernaik manifestazioa deitu du bihar Anoetan, 19:30ean hasita, Altsasuko gazteak aske behar dutela aldarrikatzeko

Jon Miranda Anoeta

Altsasuko ferien barruan, Koxka tabernan 2016an izan zen liskarraren harira, Guardia Zibilak Iñaki Abad, Aratz Urrizola, Jon Ander Cob eta Julen Goikoetxea atxilotu zituen aurreko astean Altsasun. Ohian Arnanzek, Adur Ramirezek eta Jokin Unamunok, berriz, ia bi urte daramatzate preso. Ekaina hasieran Espainiako Auzitegi Nazionalako le-

hen aretoko epaimahaiak guztira 79 urteko espetxe zigorra ezarri zien auziko zortzi gazteei -Ainara Urkijori bi urteko kartzela zigorra ezarri diote-. Haien aurkako erabakia ez da oraindik behin betikoa, epaiari helegitea jarria baitiote gazteen abokatuek, baina hala ere, preso hartu dituzte.

Horregatik guztiagatik, *Utzi bakean euskal gazteria. Espainiar Faxismoarekin hautsiz. Altsasukoak aske* leloa eramango duen manifestazioa antolatu du bihar Tolosaldeko Ernaik Anoetan eta Altsasuko auzian epaitutako gazteei elkartasuna adieraziko zaie mobilizazio horrekin.

Izan ere, larunbatean, ekainak 16, Iruñean antolatu den manifestazio nazionalaren aurrekaria

izango da eskualde mailakoa. Iruñera joateko autobusak aterako dira larunbatean Tolosalde-tik. Anoetatik joan nahi dutenek, Itzuli tabernan eta gaztetxean izango dituzte zerrendak.

Villabonatik ere antolatu dute beste autobus bat eta elizako geltokitik aterako da, larunbatean 15:00etan. Izen emateko, Iratzar eta Erreka tabernetara edo Amasa kafetegira jo daiteke, edo mezu bat idatzi 688 72 90 69 telefonora.

Alegialdetik autobus bat ateratzeko asmoa ere badute. Larunbatean bazkal ondoren atera eta manifestazio ondoren itzuliko da. Apuntatzeko mezu bat bidali beharko da, 672 13 02 03 telefono zenbakira. Biharkoa da izen emateko azkeneko eguna.



IRAGARKI LABURRAK

Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu **943 65 56 95** zenbakira, idatzi **ataria@ataria.eus** helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik.

Iragarki guztiak **iragarkilaburrak.eus-en**

«Sirian, gerragatik, populazioaren erdiak mugitu behar izan du»

ARITZ SAIDI OLAORTUA NAZIOARTEKO ANALISTA

Bihar, osteguna, Plazida Otaño liburutegiko gela balioanitzean 'Zer ari da gertatzen Sirian?' hitzaldia eskainiko du, 19:30etik aurrera, hango gatazkaren klabeak emateko.



ATARIA

Jon Miranda Zizurkil

Industria energetikoaren inguruko kooperatiba bateko bazkide izanagatik, Aritz Saidi Olaortuak (Antzuola, 1984) beti agertu du interesa nazioarteko harremane-kiko. 2015ean Ekialde Hurbilera egindako bidaiaren ondotik, han ikusitako errealitatea kontatzeko ahaleginean dihardu. Bihar Zizurkil izango da.

Sirian gertatzen ari dena, gerra zibilaz harago, 'gatazka globala' dela esaten dute. Ados zaudete?

Oso gerra konplexua da. Intentsitate baxuko mundu gerra bat. Zientzia politikoetan esan ohi da, gatazka batean kanpoko bost agentek baino gehiagok parte hartzen badute, mundu gerra kontsideratu daitekeela. Sirian, gaur egun, hamabi bat ari dira. Bihar Zizurkil sailatuko naiz hori azaltzen: gerra aurreko testuingurua esplikatuz eta gatazka nola hasi zen ulertarazten saiatuko naiz. Siria zer den, eta batez ere, kanpoko agente horientzako interesekoa zer duen azalduko dut. Eta gero, gerrako atal fuertea aipatu nahi nuke: zein bando dauden, horietako bakoitzak zein laguntza duen, zein aktorek hartzen duten parte... Kontestu mediatikoak ere badu zeresana, gerrari buruz kontatzen denak, sarritan, interes geopolitiko jakin bati erantzuten diolako eta intoxikazioa existitu existitzen delako.

Zuk zein iturri erabiltzen dituzu han gertatzen ari denaz informatzeko?

Bertako jendea ezagutzen dut eta hangoez fidatzen naiz gehien. Badaude komunikabideak bando jakin baten oso aldekoak direnak. Adibidez, Saudi Arabiak zer esaten duen jakitea interesgarria da, edo New York Times-en publikatzen dena, baina baita Hezbollah beso mediatikoa den Al Manarrek dioena ezagutzea. Profesionalak badaude hedabide handiekin lerratuta ez daudenak, Tom Dugan eta Eva Bartlett, kasu.

Zein interes ditu nazioarteko komunitateak Sirian?

Paso energetikoak dauzka Siriak. Ez da munduko erreserba handiena, ez petrolioan, ez gas naturalean. Baina kokapen geoestrategikoa begiratu klabea da. Asiatik datorren ibilbide energetiko inportanteenak bertatik pasatzen dira.

Non du sorburua gatazka honek?

Hain justu, Iranen inguruan dagoen munduko poltsa gasistiko inportanteena ustiatzerako garaian, Siria Iran eta Irakekin batera lerratu zen. Nikosiako irlatik barrena, Europako gas hodi garantzitsuenekin konektatuko litzatekeen proiektua lehenetsi zuen, Qatarrek egin zion proposamenaren kaltetan. Hori ez zioten Damaskori barkatu. Wikileakseko paperetan Bashar al-Assad Siriako presidentea paretik kendu behar zela aipatu

zen, Qatarren proiektua atzeraezina zelako. Testuinguru horretan ulertu behar da *Udaberri Arabiarra* deitutakoa. Kasualitatez errepublika aurrerakoienetako gobernuak izan ziren erorarazi zituztenak.

Eta Turkia?

Turkiak betidanik eduki du ezinikusia Siriako errepublikarekin. Gerra honen erreztalea izan da. Milaka borrokalari Turkiako mugatik sartu dira Siriara borroka egitera, ehunka milaka soldadu salafista. Baina gero errefuxiatuek, gerratik ihes egiten saiatu direnean, Siriatik atera eta Turkiara ezin pasa geratu dira. Erdoganek ez du hori egiten NATOren oniritziarekin ez bada.

Momentu honetan zein da egoera Sirian?

Badaude bastioi oso indartsuak. Tranpa handi bat egin dute bandoak sailkatzerakoan: matxinoak eta Estatu Islamikoa bereizi egiten dituzte baina *errebelde moderatu* horien barruan Al-Qaeda bezalako aspaldiko ezagunak daude. Hamaika talde txiki dira eta izenak aldatzen joan dira, matxino horiek benetan salafistak direla ezkutatzeko. Hemengo mediotan gutxitan egiten dira horrelako loturak, baina horiek berak dira, aurreko abuztuan Bartzelonan atentatua burutu zutenak.

Nola aurreikusten duzu etorkiko dela konponbidea?

Azkenengo AEBren eta Turkiaren traizioaren ondoren, hainbat borrokalari kurdu Damaskore-

kin hitz egiteko prest agertu dira. SDF Siriako Indar Demokratikoak koalizioak alde horretara joko duela espero dut. Baina kurduekin batera, koalizio horren barruan NATO dago; Belgika, Erresuma Batua, AEB, Frantzia eta baita Saudi Arabia ere. Ez dut uste azken hauek konfederalismo demokratikoa edo ekofeminismoa defendatzen dutenik, kurduek bezala. Bertan parte hartzen badute euren interesak defendatzeko da.

Garaipen militarra posible izango dela ikusten duzu?

Militarki ezinezkoa da. Siriak ez du potentzialik Turkiaren kontra egiteko, fronte zabal bat irekitzeko. Turkia NATOko bigarren armada indartsuena da, eta munduko lehenengo hamarretan dago. Eta berdina pasatzen da zonalde kurdian dauden indarrek. Militarki oso zaila da horri aurre egitea. Konponbideak izatekotan politikoa beharko du.

Luzaz iraun duen gatazka bat izan da, hala ere.

Inork ez zuen espero Siriak hain denbora luzean eutsiko zionik. Baliabide guztiekin sartu ziren eta 2014an gobernujausteko zorian egon zen. Libian gertatu denaren antzeko zerbaite gerta zitekeen Sirian ere. Afrikan etorkizun oparoena zuen herrialdea izatetik, orain begira nola bukatu duen Libiak. Mendebaldeko liderek eskuak burura eramaten dituzte hangoa ikusita baina eurek sortu dute egoera hori.

Bien bitartean, giza hondamendia ematen ari da Sirian.

Bigarren Mundu Gerran baino handiagoa da Sirian gertatu dena. 21 milioi biztanleko herrialde baten 520.000 hildako egon dira eta hori ikaragarria da. Ia inoiz ematen ez den datu bat dago: hildako horien artean 150.000 inguru Siriaren armadako gizon eta emakumeak direla. Inoiz ez da horrelako baja kopururik izan gobernu baten aldeko indarren artean.

Horri gehitu behar zaio, lau milioik egin dutela gerratik ihes atzerriera eta herrialde barruan lekuak datuak zortzi milioi inguru izan direla. Gerragatik, populazioaren erdiak mugitu behar izan du. Baina badago beste datu bat maiz ezkututzen dena: matxinoen eskutan egon diren errefuxiatu horietatik 700.000 eta 1.000.000 artean, berriz itzuli dira Siriara, Armadak gunean liberatu ondoren. Hori ez da hedabideetan esaten eta erabat argigarria da, Siriako herritarren gehiengoa zein aktorekin lerratzen den erakusten duelako.

Euskal Herrian ba al da talderik Siriarekiko elkartasun sareak huntzen ari denik?

Bai. Siriaren Alde izeneko taldea sortu da hemen, Euskal Herrian. Horko kidea ere banaiz eta lagundu izan dut, hitzaldiak ematen edo materiala prestatzen. Egia esan, askotariko jendea biltzen gara taldean eta edozeinentzat zabalik dago.

San Inazio jaietako IV. Kartel Lehiaketa martxan dago

Erredakzioa Altzo

Altzoko San Inazio Jaiei IV. Kartel Lehiaketa abian da. Bi mailetan egingo da, 12 urte artekoa, eta 13 urtetik aurrerakoa. Kartela A4 tamainako paper zurrin batean aurkeztu behar da. Aukera guztiak onartuko dira: marrazkiak, argazkiak, collageak, argazki muntaiak, artelan abstraktuak...

Kartelak udaletxean aurkeztu beharko dira, ekainak 19 baino lehen. Aurkezterakoan kartelaren atzealdean ezizena jarriko da. Kartelarekin batera, gutunazal itxi baten barnean datu pertsonalak ipini eta azalean ezizena idatziko da. Sariei dagokionez, 12 urte arteko mailan marrazteko material sorta bat jasoko du irabazleak, eta 13 urtetik gorakoentzat herri afarirako bi sarrera.

Trantsizio garaian alkate izan zen Joxe Usandizaga Arruti hil da

Erredakzioa Ibarra

Joxe Usandizaga Arruti Ibarako alkate ohia hil da. Usandizaga Arruti 1979ko lehen udal hauteskundeetan aurretik, Trantsizio garaian, izan zen Ibarako alkate. Aurretik Jose Menendez izan zen alkate eta 1979ko udal hauteskundeetan EAJko Jexux Areizagak hartu zuen Usandizagaren lekukoa.

'Herri txiki beso ugari' saioa egingo dute bihar udaletxean

Erredakzioa Bidania-Goiatz

Adinekoen inguruan hausnartzeko *Herri txiki beso ugari* saioak antolatu ditu Saiaz Mankomunitateak eta bihar egingo dute lehen saioa Bidania-Goiatzko udaletxean. 18:00etan hasiko da bilera.

Saioaren deialdia egiterakoan ondorengo galderak egin dituzte mankomunitatetik: «Gure herrian nola daude gure adinekoak? Herriko ekintzetan parte hartzen al dute? Ze ekintzetan?». Eta herritarrei beste galdera batzuek bideratu zaizkien: «Haien parte hartzea indartzeko laguntzeko prest? Nola egingo genuke hori?». Saiaz Mankomunitateko herri bakoitzean egingo dituzte saioak.

Julen Lopetegi izango da Real Madrileko entrenatzaile berria

Erredakzioa Asteasu

Julen Lopetegi asteasuarrak Real Madril entrenatuko du datorren denboraldian. Zinedine Zidane ordezkatzeko du Espainiako taldean, eta Espainiako selekzioa utziko du Errusiako Munduko Kopa amaitutakoan. Hiru sasoirako sinatu du kontratua asteasuarrak. 51 urteko teknikariak ondo ezagutzen du Real Madril, sei urtez aritu baita bertan aurretik.



Maite Izagirre alkatea eta udaleko zenbait zinegotzi izan dira urteurrenari buruz egin den lehenengo agerraldian. I.G.L.

Amasa eta Villabona elkartu zirela 400 urte beteko dira 2019an

Urteurrenari garrantzi berezia eman nahi diotela azaldu du Maite Izagirre alkateak; egitaraua prestatzeko, bi talde osatuko dituztela jakinarazi du, instituzionala eta herrikoia

Imanol Garcia Landa
Amasa-Villabona

Hurrengo urtean, 2019an, Amasa-Villabonak 400 urte beteko ditu. «1619an ziur aski arazo ekonomikoei modu egokiago batean aurre egiteko eta bien arteko liskarrei amaiera emanez, bi herriek, Amasak eta Villabonak, batasun politiko eta juridikoaren bidea ireki zuten», azaldu du Maite Izagirre alkateak, urteurrenari buruz udalak egin duen lehen agerraldian. «Egungo udal ordezkari gisa gure historiaren data garrantzitsu honi parada berezi bat eskaini nahi diogu. Udalerrri batek ez ditu egunero 400 urte betetzen», gaineratu du.

Izagirrek gogora ekarri du nola izan zen udalerrri bateratuaren hasiera: «Urte hartan bilera gu-neak adostu, udal hauteskunde- en legedi berria onartu eta kargu publikoen eginbeharrak zehaztuko zituen ordenantza berria eratu nahian, bi herriek ordezkari propioak izendatu zituzten. Azken erabakia falta zen, delegatuek onartutako ordenantza berria herri batzarrak berrestea. Gertakari hori 1619ko urriaren 3an burutu zen, eta batzar hartan Muñokiko Miguel eta Urresti

baserriko Joanes Lizarraga kontra azaldu ziren».

Urteurrena ospatzeko hurrengo urte osoan zehar gauzatuko diren jardueren egutegi bat antolatzeke garaian, udalean bi ezau-garri garbi izan dituztela azaldu du alkateak: «Lehenik, ekitaldi programa parte hartzailea izan behar duela. Eta bigarrenik, bi arlo bereizi behar direla, arlo instituzionala eta arlo herrikoia. Garbi izan dugu, beraz, urteurren hau ez dela udalarena soilik, herritar guztiena baizik, amasar eta billabonatar guztiena».

Arlo instituzionalean antolatuko diren ekintzak erabaki eta abian jartzeko, alderdi politiko guztien parte hartzearekin lantalde bat eratuko dutela azaldu du Izagirrek. Arlo herrikoian, berriz, Amasa eta Villabonako kirol eta kultur eragile guztien beste lantalde iraunkor bat osatzeko asmoa dute, «urte amaierako ekintza egutegi bat aurkeztuz». Hain justu, ekaina bukatu baino lehen bi lantaldeak eratuak egotea nahi du udalak.

Bestalde, udalak baditu ekintza batzuk aurreikusita 400. urteurrenerako. Lehenik, Sebastian Insaustik 1972. urtean herriko historiari buruz eginiko libururaren berrargitalpena

egin dute, edizio berri batean. Bigarrenik, Amasamendiko Aranerrek bidearen inguruan kokatzen diren karobietan historiari buruzko bisitak, Burdina kultur taldearen eskutik. Hirugarrenik, Oinkari herriko dantza taldearen emanaldi berezia 400. urteurrena ardatz izango duena.

URTEURRENAREN LOGOA


«Egitarau berezi honek identitate propioa izan nahi du», azaldu du Izagirrek eta 400. urteurrenarentzako sortutako logotipo berria aurkeztu du: «Alde batetik, irudi moderno bat bi herrien lehen letrak azalduz eta batuz, A eta V, Amasa-Villabona. Eta ondoren 400 zenbakia. Bestetik, leloa: *2 herri helburu 1*». Esaldiak bere esanahia duela gaineratu du alkateak: «Amasak eta Villabonak herri izaera, bere nortasuna, izan dutela eta dutela adierazten du. Eta aldi berean 1619tik aurrera bi herri horiek bere etorkizuna modu bateratuan jorratu nahi izan zutela eta dutela nabarmentzen du».

Aurtengoan zein datorren urtean logotipo berriaren irudia izango duten zapiak banatuko dira Villabonako Santio festetan eta Amasako San Martin festetan.



zozketak

Atarikideentzat **2 sarrera** ditugu



'Yerma'
Tic Tac Tolosako antzerki tailerraren eskutik.

Ekainak 15, ostirala
20:30 • Tolosa, Leidor.

Zozketetan parte hartzeko **OSTEGUNA 13:00ak arte: 943 65 56 95** edo www.ataria.eus



Olatz Peon Ormazabalek Joseba Egibar Gipuzko Buru Batzarreko lehendakariaren babesa jaso zuen, aurkezpenean. I.U.

Olatz Peon izango da Tolosako EAJren alkategaia, bigarrenenez

Gaur, duela hiru urte, alkate kargua hartu zuen Peonek, eta efemeridea baliatu nahi izan du EAJk, 2019ko udal hauteskundeetako zerrendaburua aurkezteko.

Itzea Urkizu Arsuaga

Olatz Peon Ormazabal izango da Tolosako EAJren zerrendaburua, 2019ko udal hauteskundeetan. Berdura plazan egin duten aurkezpenean, Joseba Egibar Gipuzko Buru Batzarreko lehendakaria eta hainbat lagun izan ditu alboan.

EAJk *Tolosa herrigintzan* leloa aukeratu du hurrengo urteko hauteskundeetarako, eta Olatz Peonek horri jarri dio fokua: «Azken hiru urteotan gertutasunez eta gardentasunez aritu gara udalean, eta horrela jarraitu nahi dugu, herriaren izaera eta aniztasuna errespetatuz».

Gaur hiru urte hartu zuen, Olatz Peonek, alkate kargua, eta zerrendaburu izatearen erronkari heldu dio, bigarrenenez, «hausnarketa luze bat» egin eta gero: «Esparru pertsonalean eragiten du, eta ondo pentsatu dut erabakia, baina, orain arte bezala, tolosarrentzat lanean jarraitzeko gogotsu aurkeztuko dut

neure burua. Izan ere, lau urte ez dira nahikoa izaten esku artean dugun proiektua erabat garatzeko».

Datozen hilabeteetan xehatuko dituzten proposamen eta ideien ildoak ere aurreratu du EAJren alkategaiak, azalduz, honakoak izango direla, Tolosako jeltzaleen ardatzak: «Tokiko enplegua eta sustapen ekonomikoa; gizartearen ongizatea eta inklusibitatea; Tolosaren erreferentzia izaera mantentzea; herri ekimenei babesa eskaintzea; eta, azkenik, Tolosa solidario, euskaldun eta parekidea eraikitzea».

Bere aldetik, Egibarrek azpimarratu du, «herri bat maitatzen dela esateko, aldezturik herri hori ezagutu eta errespetatu» egin behar dela, arazoak konpontzearekin batera. Era berean, EAJ datorren agintaldian etorkizunari begira jarriko dela ere iragarri du: «Berritzeko erronka dugu esku artean, eta ez dagoena kudeatzekoa bakarrik. Geroari

begira zer komeni den aztertu nahi dugu, eta belaunaldi berriei Tolosa hobe bat utzi».

Bide horretan, Gipuzko Buru Batzarreko lehendakariak Olatz Peon hautagai ezin egokiagotzat jo du: «Eskarmentu handia du, baina baita ideia berriak ere, eta eskerrak eman behar dizkiogu, hartutako erronkagatik. Bihotzaz eta buruaz, eta eskarmen-tuaz eta berrikuntzaz ariko da».

IBILBIDE LUZEA UDALGINTZAN

Olatz Peonek 16 urte beteko ditu, datorren urtean, Tolosako Udalean. Jokin Bildarratz alkate zela zinegotzi lanetan aritu zen zortzi urtez, eta horietako lau alkateorde postuan. Ondoren, oposizioan egin zituen beste lau urte, 2011tik 2015ra, EH Bildu alkateztan zela. EAJko lurralde zuzendaritzako kide ere izan zen.

2015eko hauteskundeetan jeltzaleek gehiengo osoa eskuratu zuten, eta urte hartako ekainaren 13an hartu zuen alkate kargua.

Kaleko artearen egunak gaur piztuko dira

VII. Beantatuzek bi mural izango ditu, besteak beste, protagonista; Haurren Hiriarekin elkarlanean ariko dira, halaber

Erredakzioa

Artea izango da nagusi, Tolosako sanjoanetako lehen asteburuan. Gaurtik hasita eta, igandera bitarte, nazioarteko hamar artista ariko dira, Beantatuz Kaleko Artearen Nazioarteko Jaialdia dela eta: Vadim Leukhin errusiarra; Pascal Leo Cormier, Shane Watt, Cryote eta Emily Read kanadarrak; Thomas Lateur frantziarra; Imanol Aizpuru euskalduna; Jose Enguidons beasaindarra; Bruno Malfatti brasildarra eta Alejandro Hidalgo estatubatuarra.

Zazpigarren Beantatuz izango da aurtengoa eta, berrikuntza nagusia, Haurren Hiri ekimenarekin egingo duten lotura izango da. Belaunaldien arteko transmisioa landu dute aurtun haurrek eta, gai hori ardatz hartuta, Emily Readek mural bat egingo du Zumardi Handian, haurren laguntzaz.

Bigarren mural bat ere margo-tuko du Readek. Plaza Zaharrean izango da, *Not so hopeless* bere proiektuan oinarrituz. Munduko

animaliak babesteko hainbat egitasmo ditu ardatz proiektuak.

Kaleko sormen hiztorduekin batera, erakusketak ere izango dira. Besteak beste, Renaud Harrison kanadarraren *Hirian Hazi* erakusketa kolektiboa izango da ikusgai GKO Gallery-n. Lanak haurtzaroari buruz hausnartzea du helburu, umeak eta hiria, umeak eta aiton-amonak eta haurtzaroko oroitzapenak oinarri hartuz. GKO-ko erakusketaz gain, artistaren hamar obra esanguratsuenen kopia jarriko dituzte herriko kaleetan.

BEANTATUZ 2018

Ekainak 14, osteguna. Plaza Zaharrean, murala (Emily Read) 19:00etatik 21:00etara, erakusketa: *Hirian hazi* – Childhood in the city (Renaud Harrison)

Ekainak 15, ostirala. Plaza Zaharrean, murala (Emily Read)

Ekainak 16, larunbata. Zumardi Handian *Haurren Hiri* murala (Emily Read + haurrak)

Serigrafiaz, gure zapia kolorez *Haurren Hiri* festan (GKO + haurrak)

Ekainak 17, igandea. 10:00etatik 15:00etara, graffiti murala San Esteban auzoan. (Irekia)



lax Larramendin aritu ziren mural bat margotzen. I. GARCIA LANDA

Musika eskolako matrikula epea zabalik

KULTURA // Eduardo Moco-roa Udal Musika Eskolako matrikula epea zabalik da, jada, bertakoak ez diren ikasleentzat, hilaren 29ra bitarte edo lekuak bete bitarte. Musika eskolan egin behar da izen-ematea, 10:00etatik 13:00era eta 17:15etik 18:30era. Telefonoa: 943 65 15 93.

Musika eskolako ikasleen kontzertua, Uzturre zentroan

KULTURA // 2017-2018 ikasturtea amaitu eta behar bezala biribiltzeko, Tolosako Eduardo Moco-roa Udal Musika Eskolako ikasleek kontzertua eskainiko dute, bihar. Emanaldia 17:30ean hasiko da, eta Uzturre hirugarren adineko pertsonen zentroan izango da.

Hogei urte eta liburua kalean

M. Iraola Larraul

Maddi Etxeberria larraularrak bere lehen nobela argitaratu du: *Zein usain dute oroitzapenek?*.

Etxeberria literaturzalea da txikitatik. Orduak eta orduak eman ditu irakurtzen, baita zenbait ipuin eta eskutitz idazten ere. Martin Ugalde literatur saria, Aiztondoko Gutun Lehiaketa, edo Urruzunotarrak gehituz sariketa irabazitakoa da, besteak beste. «Literatura beti izan da nire babesleku; errazagoa izan zait gauza batzuk paperean azaltzea, hitz eginez baino», dio gazteak.

20 urte dituela iritsi da bere lehen nobela: «Jende askok ezin du

esan adin honekin liburu bat argitaratu duenik. Oso eskertua nago, Erein argitaletxeak nire proiektuan sinetsi duelako, eta hilabete gutxian nire lana ordenagailuan egotetik argitaratuta egotea pasa delako. Konfiantza osoa eman didate. Oraindik ez dut sinesten liburu argitaratu dudanik», aitortu du.

Eskutitzekin osatutako nobela da, estilo horretan «eroso» sentitzen baita Etxeberria. 25 urteko neska bat da nobelako protagonista nagusia, Gaia. Irakaslea da, eta Erresuma Batura joaten da lanera. Gaiak Heleni bidalitako eskutitzek osatzen dute kontakizuna, maitasuna, gaixotasuna edota heriotza bezalako gaiak azaleratuz.

'Ongi etorri baserrira' ekimena Asteasun eta Bidanian

Baserri mundua eta hiriaren arteko zubigintza lanak egiteko ekimenaren bosgarren edizioa izango da aurtengoa

J. Miranda

Ongi etorri baserrira ekimena berriro ere eskualdean izango da. Uztailaren 7an, esate baterako, Asteasuko Bulano eta Bidaniako Zela-Ondo baserriko ateak zabalduko dituzte.

Duela lau urte, Enba sindikatua Gipuzkoako zortzi baserrietako ateak zabaldua erabaki zuen, etxeko ateak zabalduaz, ekoizle eta kontsumitzaileenganako harremana sendotu eta estutu nahian. Jakien jatorria berraurkitzeko, eta beren ingurune naturalean, mahaian dastatzen ditugun elikagaiak ekoizten dituzten baserriak ezagutzeko aukera ezin hobea eskainiko du ekimenak.

Familian edo lagunartean egiteko bisitak izango dira. Euskaraz, Asteasuko Bulano baserriko esne behiekin egiten den lana ikusi ahal izango da bertatik bertara eta Bidanian, berriz, Zela Ondo baserriko Lumagorriko oilaskoak ikusi ahal izango dira. Gainera, saio horretan, *Nirea* haur tailerra izango da.

Bisitak, 11:00etatik 14:00etara egingo dira eta baserrien eta ibilbideen gaineko informazioa eta izen emateak, www.ongietorribaserrira.eus webgunean egin daitezke. Ekainaren 30a da izen emateko azkeneko eguna eta dohan parte hartu ahal izango da. Informazio gehiagorako 943 65 01 23 telefonora hots egin daiteke.



SARAJEVO: GERRA, BAKEA

Gervasio Sanchezek egindako argazkiak ikusgai izango dira ekainaren 29ra arte, Zizurkilan kokatutako Plazida Otaño liburategiko erakusketagelan, *Sarajevo: gerra eta bakea. Iaz betez mende laurden Balkanetako gatazka hasi zenetik eta Sanchezek aitortu duenez, bombardaketekin amesten jarraitzen du eta bertako biztanleen aurpegiak beldurra ikusten*. J.M.

IV. ATARIA PILOTA TXAPELKETA

Final usainez

IV. ATARIA PILOTA TXAPELKETA

ESKUZ

BENJAMINAK B

ANOETA. FINAL LAURDENAK

Iparragirre-Ormaetxea	16
Dieguez-Larrarte	8
Plaza-Zufiria	16
Tejeria-Tejeria	11
Lanzeta-Aburuza	3
Zuriarrain-Lasa-Domintxin	16
Iraola-Navarro	16
Yurrita-Artola-Gartzia	9

BENJAMINAK A

ALBIZTUR. FINAL LAURDENAK

Arandia-Elola	16
Fernandez-Izagirre	8
Agirrezabala-Zubillaga	16
Goitia-Elola	13
Perurena-Tolosa	16
Altuna-Unanue	6
Lopetegi-Lanzeta	8
Goñi-Gorostidi	16



ALEBINAK

ALKIZA. FINAL LAURDENAK

Cestau-Aristeta	7
Castro-Tolosa	16
Murua-Ugartemendia	4
Zabala-Iparragirre	16
Meulman-Otegi	16
Gibelalde-Tejeria	11
Garmendia-Irastortza	4
Gorostiaga-Ruiz	16

INFANTILAK

AMEZKETA. FINAL LAURDENEN AURRETIKOA

Sorarrain-Auzmendi	9
Agirre-Huitzi	18
Agirrezabal-Lanzeta	18
Gorostidi-Gorostidi	13

PALAZ

ALEBINAK

ALTZO. FINAL LAURDENEN AURRETIKOA

Maiz-Urkola	6
Arretxe-Altuna	16
Maiz-Urkola	3
Agirre-Navarro-Zabala	16
Arretxe-Altuna	7
Agirre-Navarro-Zabala	16

ARGAZKI GALERIA

Argazki galeriak, emailtzak, egutegiak ondorengo helbidean ikusgai: www.ataria.eus/bereziak

Hilberriak eta urteurrenak



Ildefonso Martin Etxeberria Zalakain

*Beti arte,
beti gurekin.
Crack bat zara osaba.*

Berrobiko familiaren partetik



Joxe Usandizaga Arruti

ALKATE OHIA

Egindako lana eta izandako konpromisoa eskertuz.



IBARRAKO UDALA

IBARRAN, 2018ko ekainaren 13ean

ataria jarrita Gipuzkoako 3 Hitzetan DOAN

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 64mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €
HANDIA (124mm X 64mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €
ESKERTZA (38mm X 64mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 € bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95
Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu •
Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu

Asier Imaz Tolosa

Dakienari entzutea bezalakorik ez dago; eta arrauna, barru-barrutik, Anjel Larrañagak (Tolosa, 1967) ezagutzen du. Kontxako bandera arraunlari bezala irabazi zuen, Oriorekin. Ondoren, arraun entrenatzaile ibili zen, besteak beste, Oriorekin. Eta nola ez, aukera izan duenean, berriro itzuli da Oriora. Oraingo honetan, Jon Salsamendi entrenatzailearen eskutik.

Iaz Zarautzen, aurtan Orion. Zer moduzko jauzia izaten ari da?

Gauza guztiak bezala konplexua. Talde guztietan bezala lana egitea tokatzen da. Hasiera gogor eta lotu samarra izan da, baina ilusioarekin eta lanerako prest gaude.

Azkenean zein da Orion zure ardura?

Entrenatzaile bezala nago, Jon Salsamendiren esanetara. Berak Eusko Label Ligako taldea osatuta duen heinean, ni B taldeaz arduratuko naiz, KAE 2 Ligan. Hala eta guztiz ere elkarlanean jarraitzen dugu. Atsedean egunean berari esku bat botatzen diot, eta berak, nire gabezi edo zalan-tzak argitu eta betetzen ditu.

KAE 2 Liga esan duzu.

Hori da. Orio B-k iaz maila galdu zuen. Aurtan ilusio handiarekin gaude, jende oso gaztearekin ari gara lanean. Ez da erraza azaltzea Orio batean jarraipena zergatik kostatzen den horrenbeste. Lehen taldea oso maila altuan dago, eta ez da erraza jauzi hori ematea. Urte batzuetan gazteak pixka bat hor geratzen dira, pazientzia gutxi daukagulako denok.

Zer moduzko harrobia dago Orion?

Oso polita. Gazte eta jubenil mailan neska-mutil asko daude. Behin seniorretara jauzia ematerakoan, ordea, proiektzio gutxirekin edo justu samar ikusten diren arraunlariek utzi egiten dute. Baina Orion entrenatzen eta lanean jarraitzeko kultura hori oso sartua dago. Horregatik, harrobi oso polita dauka.

Izan ere, arraunak nonbait harrobirik badu, hori Orion izango da.

Beste elkarreetan ere badago, baina egia da herrian arrauna kirol nagusienetakoa dela. Ikastolatik ateratakoan ume guztiak arraunera joaten dira, edo guxtienez probatzen dute. Zentzu horretan lan asko egiten da.

KAE 2 Ligan, zein da zuen helburua?

Aurrena maila eta gure indarrak

«Adi egon beharko dugu behetik datorrenari eusteko»

ANJEL LARRAÑAGA ORIO B-KO ENTRENATZAILEA

Zarautzen entrenatzaile lanetan ibili ondoren, Oriora itzuli da tolosarra; aurrez, arraunlari eta entrenatzailearen laguntzaile lanetan ibilia zen



MIKEL IRAOLA

neurtu behar ditugu. Talde oso gaztea daukagu. Kanpotik arraunlari batzuk etorri zaizkigu, aurrera begira proba egiteko-tan direnak. Inor gutxietsi gabe, ahalik eta ondoen egiten saiatuko gara; ea goreneko txandan egotea lortzen dugun. Eta zorte pixka batekin, ea Oriok KAE 1 Ligan merezi duen tokia berriz bilatzen duen.

Eta Eusko Label Ligan, zein izango da Orioren helburua?

Betikoa: goren-goreneko maila ematea. Aurtan berriro ere kromo aldaketa asko egon dira talde guztietan. Talde indartsuek hor jarraitzen dute, sendo. Behetik datozenak, esate baterako Santurtzi eta Donostiarra, oso gora begira daudela ikusi dugu. Adi egon beharko dugu denok, behetik datorrenari eustea kosta egiten delako. Hor goran egonkortuta dagoenarentzat konplexuagoa izaten da ilusio hori

mantentzea. Oriok, ahal dela, hor goran egoten saiatu behar du.

Azken urte luzeetan Urdaibai eta Hondarribia izan dira goran. Orio iritsi da, eta Zierbena bidean dela ematen du.

Zierbena beti hor dago, baina harrobiko arraunlarien kopuruarekin izan ohi du arazoa. Maila pixka bat jaitsi egiten zaio. Santurtzi eta Donostiarra fitxaketekin oso gogotsu daude. Azkarregi da ezer esateko, baina Kaiku bere bajekin, San Pedro eta San Juan aldaketekin, borrokan egon beharko dutela uste dut. Goiko hirukoa nahiko argi ikusten dut. Besteena ez hain argi. Estropada bakoitzaren baldintzak eta txandak garrantzi handia izango dute, bigarren multzo horretan mugimendu handia egongo delako.

Udazken negu parte horretan,

zuretzat zer izan da aipagarriena?

Kaikun egon den sakabanaketa. Azken urteetan fitxaketak eta fitxaketak egin dituzte eta ez zen erraza hori mantentzea. Hala eta guztiz ere, izenez behintzat, taldea osatzen ari dira. Bestalde, horrenbeste urtez goran daudenak goran jarraitzen dutela ikustea ere aipagarria da. Bai Hondarribia, bai Bermeo, lan izugarria egiten ari dira eta ez dute hutsik egiten. Harrobiaren alde asko eta ondo hitz egiten du horrek. Azkenik, Orio horien tartean egotea oraindik eta esanguratsuagoa iruditzen zait.

Zuk esan duzu: Hondarribia eta Urdaibai beti daude hor.

Harrobiak ematen dizun sendotasuna da hori. Lan asko egiten ari dira, eta bat edo bestea jarri ez dute aldaketa handirik sumatzen. Aspaldiko partez, Oriok lehiari eustea lortu du aurtan bai

bateletan, bai trainerillan eta baita aulki mugikorrean ere. Harrobia osasuntsu dagoela erakusten dute adibide guzti hauek. **Denboraldi-aurrea amaitu eta Eusko Label Liga hilaren 24an hasiko da. Lehen lau estropadek argituko dituzte iragarpenak.**

Lehen hiru estropadetan gauza asko nabarmen geratuko dira. Mailari eustera edo ligarengatik borrokatzea zein datorren ikusiko da. Orain arte Zierbena zeresana ematen ari da, baina lehen esan bezala, kopuruaren kontuarekin, agian talde hori ezin izango dute atera ligan. Gorabehera txiki horiek ligak berak argituko ditu.

Euskotren Liga ere hor dago. Hasteko, albiste handiekin dator emakumeen traineru denboraldia.

Gauza asko lortzen ari dira, eta aurrera pausoak beti dira pozgarriak. Kontxan zortzi talde egongo dira aurtan, eta sari aldetik ere parean jartzeko pausoak eman dira. Albiste oso pozgarriak dira, eta gero, Tolosaldearen traine-rua dago.

Aurreko hamarkadan atera zenuten eskualdetik trainerua. Orain beste sendotasun batekin datorrela ematen du.

2008an atera genuen lehen aldiz, kolpetik. Bidaiak, entrenamendu lekuak... eragozpenak beti izaten dira handiak. Getaria Tolosaldea izatera pasa zen ondoren, baina eragozpenek hor jarraitu zuten. Ibilbidean atsedean bat hartu ondoren, gazte jendearekin berriro aurrera egitea erabaki da. Pazientzia eduki behar da. Ea zortzarekin poztasunak ekartzen dituzten eskualdera.

San Juan, Orio... horiek nabarmendu dira denboraldi-aurrean.

Eta ez dutela huts egingo uste dut. San Juanek ez du ezer aldatu. Oriok jauzi nabarmena egin du. Euskotren Ligan beste bi postuak egongo dira jokoan. Hondarribia goraka dator, eta Donostiako bi taldeak ere txukun ari dira gauzak egiten. Bizkaian ez dago ezer asko, baina ikusi beharko da Galiziatik zer datorren.

Tolosaldeari komeni al zaio lehen maila horretan egotea?

Ona izateko beti onenen tartean egon beharra daukazu. Euskotrenen sartuko balitz, nahiz eta azkar izan, ez litzateke albiste txarra izango; azkena ibili behar baldin badute ere. Pazientzia eduki behar da, eta lana, ahalik eta ondoen egin.



ASTEAZKENA, 2018KO EKAINAK 13
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Naiara Roldan de Aranguiz
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetaldea@ataria.eus
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: **902 82 02 01**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Ballarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larrauri, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



I. URKIZU

«Beti gustuko izan dut gauza berriekin saiatzea»

XABIER ANUNZIBAI ARTISTA

Itzea Urkizu Arsuaga Tolosa

Bere ibilbideari erreposoa egiteko aukera izan zuen Xabier Anunzibai artistak, Tabakaleran, *Bilduma* erakusketarekin. Haren lagin txiki bat Tolosan du, orain, GKO galerian, eta ekainaren 24ra bitarte izango da ikusgai. Memoriak atzera egiten uzten dionez geroztik, arteari lotu izan dio bere denbora eta, azken urteotan, erabat aritzen da horretan, estudioaren eta kalearen arteko zubiak eraikiz.

Erakusketa zabaldu zenuen, duela zenbait aste, GKO galerian, eta ekainaren 24ra bitarte zabalik da. Erakusketaren aurkezpenak dio, zure azken urteotako ibilbidea bildu du zula bertan. Hala al da?

Bai, hala da. GKO-n dagoen erakusketa aurten egindako beste erakusketa baten jarraipena da. *Bilduma* izenburupean, Tabakalerako Kutxa Kultur plaza espazioan aurkeztu nuen eta, esan bezala, azken urteotako estudioko hainbat lanen bilduma bat zen. Hura amaitu zenean, GKO-ra eramatea erabaki genuen, bertsio murritzuta batean, nolabait; lan aukeraketa bat egin genuen, eta *Bilduman* ez

zeuden beste bi lan ere gehitu genituen.

Gogoan al duzu sorkuntza lanean noiz hasi zinen?

[Barreak] Ez dakit! Txikitatik aritu izan naiz, betiko oroitzapenak ditut. Ez bakarrik marrazten eta margotzen, baizik eta gauzak eraikitze-eta beti izan dut afizioa. Urteen poderioz, hori lantzen jarraitu dut, ez dut sekula utzi. Eta, azken urteotan, erabat horretan zentratuta nabil, bai estudioko lanak egiten, bai kaleko horma-irudiak margotzen.

Erakusketa antolatzerakoan, nabaritu duzu zure obra garatu denik?

Bai, asko gainera. Aldaketa handiak ikusten ditut nire lanean, nahiz eta badiren errepikatzen di-

ren joerak. Beti gustuko izan dut gauza berriekin saiatzea, edo ideia berriekin lan egitea eta, bide horretan, nire lana ere aldatu egiten da. Oraintxe bertan, adibidez, hainbat elementuz osatutako konposizioak egiten ari naiz eta, beharbada, urteetan barrena ikasitako gauzak uztartzen ari naiz.

Kalean nahiz estudioan, hainbat material eta formarekin lan egiten duzu. Horietakoren batean aritzen al zara erosoago?


Nola estudioko lana, hala horma-irudien margotzea, biak beharrezko ikusten ditut niretzat. Lan egiteko modua oso desberdina da bietan: estudioko lana kontrolatuagoa izan ohi da beti, eta xehetasunei arreta handiagoa jartzeko aukera eskaintzen du; aldiz, horma-irudietan, lana fisikoagoa bilakatzen da eta, askotan, denbora ere murriztagoa izaten da. Dena den, estudioan ikasitakoa aplikatu daiteke horma-irudietan, eta baita alderantziz ere. Esan bezala, ordea, bietan lan egiteko modua oso desberdina denez, gustatzen zait bietan aritzea.

Orain baduzu proiektu berri-rik esku artean?

Bai, pare bat proiektu lotu ditut, hilabete batzuk barru egiteko, eta beste hainbat egitasmo hitzartzen ari naiz. Beti sortzen dira proiektuak, eta batzuetan zain egon behar izaten da, airean dauden egitasmo horiek erabat lotzeko.

Artisten egunerokoa pausoz pausokoa da.

Nire kabuz proiektu pertsonal asko egiten ditut eta, horietan, nire erritmora joaten naiz. Gero izaten dira mural-margotzeak edo erakusketak, eta zain egon behar izaten da. Baina, bitartean, nik gauzak egiten eta prestatzen jarraitzen dut: ona da beti materiala prest izatea eta norbere lan-jarduna ez etetea. Lotutako ezer ez daukadanean, beraz, nire kabuz aritzen naiz.



Xabier Anunzibaik bere ibilbidearen erreposoa bildu du GKO-n. ATARIA

ASTEAZKENA 13

AGENDA

Deialdiak

Alegia. Tolosaldeko Gazte Mugimenduko Gazte topaketak. **09:00.** Gosaria. **10:00.** Ondorioak. **12:00.** Auzolana.

Alegia. *Artearekin jolasten*, tailerra. Haurrei eta familiei zuzenduta dago, eskolako patioan, 16:00etan.

Ikaztegieta. Kantu saioa. Euskal abestiak abestea gustuko duten herritarrei irekitako saioa da. 20:00etan, udaletxean.

Tolosa. Gyotaku tailerra. Inprimatze tailerra izango da, eta 10 euroko kostua izango du. Minimaliak dendan, 17:00etan.

Tolosa. Iurreamendi egoitzako festa. **10:30.** Meza. **11:00.** Altxorren bila Laskoraineko ikasleekin. **16:30.** Iurreamendi egoitzako abesbatza. **17:30.** Tolosako Musika Eskolako ikasleak.

Tolosa. Emakumeen Etxea eraiki. Prozesu parte-hartzailearen aurkezpena izango da. Udaletxean, 19:00etan.

Tolosa. *Erlea eta erlezaintza*, hitzaldia. Mikel Zubeldia Gipuzkoako Erlezainen Elkartearen lehendakaria eta Bidatz Sasiain Biologian lizentziatua izango dira. Antxon Bandres Bidaierien Txokoa, 19:00etan.

Tolosa. *Buho eta Maravillas* erakusketa. Topic-en.

Zizurkil. Sarajevo, gerra eta bakea erakusketa ikusgai ekainaren 29a arte, Plazida Otaño liburutegian.

ATARIA IRRATIA

09:00-11:00. Pasahitza.

Eskualdeko berriak, Iker Ibarluzea-ekin eguraldia, Oskar Tenarekin artearen txokoa, Karlos Linazasoro *Kale Kantotik*, Idoia Apaolaza psikopedagogoa eta Tolosaldea Garatzenen tarteak.

11:00-12:00. Eutsi goiari.

Kirol albisteak.

12:00-13:00. Entzuteko jaioak.

Musika saioa.

15:00. Playback Ataria.

Adrianna Gaultier Djaren musika saioa.

16:00-18:00. Zebrabidea.

Arrosa Sarearen magazina.

18:00-20:00. Goizeko saioak utzitako onena.

20:00. (H)ari naizela.

Imanol Artolak, *felixek*, gidatutako bertso saioa.

28 KANALA

12:30. Onein.

13:30. Gaurkoan Tolosaldetik.

17:30. Gaurkoan Tolosaldetik.

21:30. Gaurkoan Tolosaldetik.

22:00. Amaia DJ.

22:30. Euskadiko Fitness Txapelketa Gernikan.

23:30. Gaurkoan Tolosaldetik.

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa.

Olarreaga Aranburu, I.
Korreo kalea, 2.
Telefonoa: 943 670128.

Gauekoa. Morant Barber, R.

Zabalarreta lorategiak, 1.
Telefonoa: 943 673849.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Atzokoan baino euri gutxiago botako du, baina arratsaldeko lehen ordura arte zaparradak izango ditugu, tarte mardul samarrak izan daitezke. Lehen orduetan nahiko sarri botako du gainera, euri litro batzuk pilatuko zaizkigu. Arratsalde erditik aurrera eta iluntzean zaparradak tartekatukoak izango dira, ez du hainbeste euririk botako baina zerua erabat estalita mantenduko zaigu. Ipar-ekialdeko haizeak bizi jarraituko du, tenperatura ere gehiago jaitsiko zaigu, 16-17 gradura nekez iritsiko dira.

Bihar. Eguraldi kazkarrak jarraipena izango du. Badirudi egunaren bigarren zatian altxatzen hasiko dela. Lehen zatian euri txiki modura bustiko du, zaparradak tartekatukoak izango dira, eguerdi aldera arte eguraldi amorragarri samarra izango dugu. Tenperatura gorago etorriko da, 20 gradu.

TOLOSALDEKO ATARIA-k ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.